



IRURAKO ETA ALDABAKO JAIEN EGUN NAGUSIA

San Miguel eguna izaki, ekitaldi ugari izango dira gaur bietan; Iruran, Bixi Larrinagari omenaldia egingo diote >6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Astearta
2009-09-29

VIIURTEA 1788.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian Bedaiko Zaldi Raideko une bat. Behean, Zizurkilgo lasterketakoa. I.L.

Zaldien eta zaldunen topaleku izan dira Bedaio eta Zizurkil

KIROLA Bedaion II. Zaldi Raidean giro polita izan zen; Zizurkilen, Telleria garaile zaldi lasterketan 7



Goian, Ibarra pintxo lehiaketako une bat. Behean animaliak Asteasuko azoka berezian. IDOIA LAHIDALGA

BERTAKO JAKIEN ERAKUSLEIHO IZAN DA ESKUALDEA ASTEBURUAN

TOLOSALDEA Asteasun, Bidegoianen eta Ibarra azoka bereziak izan zituzten herenegun; jende ugari gerturatu zen ikusi eta dastatzera 4-5

•BERRIREKIERA•

berogas

Bainugelak, sukaldeak, berokuntza,
gasa, energia berriztagarriak

Gremioen
koordinazioa

San Frantzisko, 10 • TOLOSA • Tel.: 943 653 307
www.berogas.com

Hasiera ezin hobe eman dio denboraldi berriari Laskorainek

Tolosa » Legazpiko La Bellota taldearen aurka 6-1 irabazi zuten horitxoek; taldea eraberritu egin dute.

ERREDAKZIOA

Laskorain areto futbol taldeak ekin dio denboraldiari, eta ez nolahi gainera, 6-1 irabazi baitzuten La Bellota taldeari.

Taldekoek dioten moduan, «17 urteko bilakaeran aro berria» ireki dute. Izan ere, horitxoentzat ikasurte berria ez da Nazional B mailan jokatzeko beste denboraldi soil bat izango, hamargarrena erreskan; horrez gain, «kirol talde eraberritu baten estreinakoa ere izango da». Saldias, Telletxea, Amatriain eta Domentxe jokalariek «paregabe eta ahaztezinak» taldea utzi dute, baina taldeak jokalariek multzo «gazte bezain prestatu eta adoretsua» osatu dute.

Hala, talde eraberrituarekin hasiera ezin hobe eman diote denboraldiari. Kapitainaren besokoarekin Unai Barriola kantxaratu zen Laskorainen historiako laugarren kapitaina bihurtuz eta Xabier Bengoetxea, David Prados eta Andoni Saldiasen lekukoa hartuz.

Maila estreinatzen zuten Legazpiko La Bellota izan zuten horitxoek arerio eta «nahikotasunez» nagusitu zirela esan daiteke. Legazpiarrek 2 eta 1 markagailuan gerturatutakoan ikusi ziren minuturik orekatuenak baina bigarren zatia zortzigarren minutuan Telleriak sareratutako etxekoan hirugarrenak partida desorekatu egin zuten. Beste bost golak, berriz, Gil, Murgi eta Elolaren artean banatu zituzten. Azken bi jokalariek hauek bina gol sartu zituzten, gainera.

Taldeko kide berriak

Golegileez gain, protagonistak nagusiak laskoraindar debutariak izan zireten norgehiagokan. Azken bi urteetan aritu den Alonso entrenatzaileak aurtengoan Javi Mujika entrenatzailearekin eta Imanol Moyano prestatzaile fisikoarekin batera egingo du lan eta azken honen eragina «asko» antzeman omen da aurre denboraldiko entrenamenduetan.

Beste debutariak jokalariek berriak izan ziren, hau da, Urko Alonso atezaina eta Mikel Alonso, Iñigo Belloso eta Jon Elola jokalariek. Laskorain «eraberrituaren» lehendabiziko deialdia ondorengoei osatu zuten: Javi delegatua, Endika atezaina eta Telleria, Murgi, Gil, Camio izan zen hasierako boskotea; Barriola, Zubillaga eta Zabala jokalariek ere zelairatu ziren aldaketan osten.

Olaberriak bi domina lortu ditu Europako Txapelketan

Ikaztegieta » Urrezkoa jazarpeneko proban eskuratu du, eta puntuaziokoan, berriz, brontzezkoa.

erraz gailendu zen Hayna Mayo ingelesaren aurretik. Hirugarren postuan Edyta Jasinska poloniarra sailkatu zen, Elissavet Chantziaren aurretik.

Bigarren egunean ere podioan

Larunbatean ere proba zuten Leire Olaberriak Europako Txapelketan, kasu honetan, puntuazioko proba. Lehia honetan ez zen garailerterik Irte Ikaztegietakoa, baina, hala ere, emaitza ona lortu zuen, podioan sailkatzea lortu baitzuten. Valentina Scandolara italiarrak lortu zuen urrezko domina emakumezkoen puntuazioko proban. Anastasia Chulkova errusiarrak bigarren

egin zuten, zilarrezko domina, beraz. Bere atzetik sartu zen, hirugarren postuan Olaberria, txapelketa honetan bigarren domina lortuz.

Polonia garaile

Europako Pista Txirringidularitza Txapelketa III. Trofeo Ciutat de Barcelona herenegun amaitu zen hiru egunen ostean. Taldekako probetan lortutako puntuazioak kontuan hartuta Polonia izan da irabazlea, Alemania gertu izan badu ere.

Parte-hartzaile euskaldunegi dagoenek, Olaberriak lortutako bi dominei Unai Elorriagak taldeko lortutako batu behar zaie.

ERREDAKZIOA

Europako Pista Txirringidularitza Txapelketa jokatu dute asteburu honetan Bartzelonan, eta bertan bi domina lortu ditu Leire Olaberria ikaztegietakoa, urrea jazarpeneko eta brontzea puntuaziokoan.

Ostiralean hasi zen Txapelketa, eta egun horretan jokatu zuten jazarpeneko proba. Ikaztegietakoa



Urrezko domina jazarpeneko lortu zuen, eta brontzezkoa puntuaziokoan. N. URBIZU

Berdinketa garrantzitsua erdietsi du Lauburu areto futbol taldeak

Ibarra » Zierbena talde «indartsuaren» aurka 2-2 egin zuten larunbatean; hirugarren postuan dira sailkapen nagusian.

ERREDAKZIOA

Berdinketagarantzitsua eskuratu zuten Ibarra areto futbol taldeak larunbatean Zierbenaren aurka jokaturiko partidaren. Talde indartsua da Bizkaikoa, beraz, lortutako puntuak erakusten du ibarretrek handiegi ere aurre egiten badakitezela.

Partida azkarra izan zen, eta une oro arriskua zegoen bi aretan. Beraz, gol aukera ugari egon ziren bi taldeen aldetik, baina sareratzeko

txi, batez ere, atezainek egin zuten lanari esker. Kasu honetan, Igor Zabalo eginiko lana nabarmendu behar da.

Golak ez ziren iristen, eta bazirudien horrela izango zela partidaren amaierara arte, baina azkenean, 17. minutuan etxekoek, hau da, Zierbenakoek egin zuten lehen gola Borja jokalararen eskutik. Ez zuten asko iraun euren pozak, hurrengo jokaldian Loitzun Sanzek banakoa egin baitzuten, atezainak Vicotr Silvack eginiko alderatzea baliatuz.

Sakearen ondoren, Ibarrek baloia lapurtu zuen, eta kontraeraso azkarra burutu zuen Loitzunek, 1-2koa eginenez. Partidaren 19. minutuan zen.

Bigarren zatian erasoari gogor

ekin zion Zierbenak, berdinketa lortu nahian. Aukera garbiak izan zituen, baina Zabalo atezainak ekin zituen geldiketa handiekin. Zierbenako Rober jokalariek eginiko jaurtiketa bat ezin izan zuten gelditu, ordea, eta markagailua bina jarri zen. Ez zen gol gehiagorik izan partida amaierara arte. Partidako berri txarra Ion Ander Karrearen lesioa izan zen. Ibarrek lorturiko puntuarekin, hirugarren dira sailkapenean.

Jubenilen hasiera aste honetan

Aste honetan hasiko dute denboraldia jubentzen. Taldeko atezaina behar du, beraz, deialdia luzatu dute atezain jokatu nahi dutenentzat. Gaur edo ostiralean agertu behar dute kiroldegian, 17:30ean.

Laburrak

Nafarroako finalurrekoa galdu du Zeberio II.ak

ELDUAIN » Lizaso eta Urrizaren aurka jokatu zuten IV. Nafarroako Gobernuko Txapelketako finalurreko partida herenegun Zeberio eta Balezenak. Ezin izan zuten irabazi, eta alde hadiarekin, gailendu ziren Lizaso eta Urriza. Itzuliko partida larunbatean jokatu dute, Berrioplanon, 18:00etan hasita. Zeberio elduainarrak eta Balezenak 15 tantoko aldearekin irabazi behar dute txapelketan aurrera egin nahi badute.

Txitxi Orbegozoren arte eskolan izena ematea

TOLOSA » Txitxi Orbegozoren arte plastikoan tailerra urrian hasiko da ikastaroekin. Bertan, gaztetxoentzako nahiz helduentzako marrazketa eta pintura hastapeneko eskolak ematen dituzte. Gazte eta helduentzako eskolak ostegunetan izango dira, eta haurrentzakoak, berriz, astelehenean. Txitxi Orbegozo eta Helga Massetani dira irakasleak. Informazio gehiagorako eta izena emateko 669 69 43 21 edota 617 23 80 62 telefono zenbakietara dei daiteke.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalitzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Gurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Garaipen batekin hasi du denboraldia Transportes Lakunzak

Villabona » Aurten, mailaz igo ostean, Nazional Bn ari da; Clinica Dental Aldaz izan zuen aurkari larunbatean.

ERREDAKZIOA

Denboraldiko lehen partida jokatu zuen larunbatean Villabonako Transportes Lakunza areto futbol taldeak. Iaz gainera, mailaz igozteaz lortu zuen, eta orain, Nazional Bn ari da. Bikain ekin diote aldaketari, denboraldia garaipen batekin hasi baitute. Clinica Dental Aldaz talde lasartearra zuten aurkari, eta 5-leko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka.

Etxean, Olaederra kiroldegian jokatu zuten lehendabiziko jardunaldia. Lehia oso parekatua izan zen hasierako minutuetan, nahiz eta aukera gehien etxekoek izan. Une horietan erakutsi zuen bere nagusitasuna eskualdeko taldeak. Bertan, taldeko jokaldi baten ostean, partidako lehen gola sartzea lortu zuen Sergio Pascualek. Hala, eta zenbait larrialdi igaro ostean, atsedendiaren garaia iritsi zen. Honek, huts egiteak zuzentzeko eta defentsan kontzentratzeko baliotza izan zuten. Baita, aurrealdean indartsuago aritzeko ere.

Bigarren zatian parekotasuna oso nabarmena zen. Defentsan egindako presio handiari esker, Pascualek baloia kendu zien aurkari eta ezkerrearekin partidako bigarren gola sartzea lortu zuen. Hamabi minutu besterik ez ziren falta jada norgehiagoka amaitzeko, eta nabaria zen jokalarien nekea. Honek abantaila eman zien etxekoek. Hala, lasartearrek atezaina ere jokalar bezala jartzea erabaki zuten, eta presioa areagotu egin zen. Horrela iritsi zen markagailura bi eta batekoa. Hortik aurrera Villabonakoak gailendu ziren eta Sanz, Hautsi eta Garciairen eskutik etorri ziren hurrengo hiru golak.

Hurrengo norgehiagoka Urretxun jokatu du Transportes Lakunzakoek. 18:00etan hasiko da lehia.

Denboraldiko hirugarren partida berdinketarekin amaitu du Tolosa CFk

Tolosa » Ordiziaren aurka etxean jokatu zuen derbia larunbat arratsaldean; lehia gogorren ostean, bana egin zuen.

ERREDAKZIOA

Denboraldiko hirugarren partida berdinketarekin amaitu du Tolosa CFk. Ordiziaren aurka jokatu zuen derbia larunbat arratsaldean, Berazubi estudioan, eta 1-leko emaitzarekin amaitu zen partida.

Lurraldekako Ohorezko Mailan jokatzeko dute urdinekin. Hala, joan den larunbateko norgehiagokaren ostean, sailkapeneko zazpigarren postuan dira, bost punturakin. Hurrengo partida, kanpoan, Zarautzen jokatu du.



Tolosak Ordiziaren aurka jokatu zuen derbia joan den larunbatean, Berazubiko estadioan. DV

«Gure helburua da etxeko partidak irabaztea eta kanpokoetan behintzat, ez galtzea»

ALBERTO IZQUIERDO » Tolosa CFko entrenatzailea

Futbola » Jose Manuel Luluagaren tokia hartu du Alberto Izquierdok eta bera izango da entrenatzaile berria hemendik aurrera.

E ZEIZA

Hilaren 12an eman zioten hasiera denboraldiari Tolosa CFko futbolariak. Hiru partida jokatu dituzte orain arte, eta denera bost puntu poltsikoratu dituzte. Aurten Alberto Izquierdo izango dute entrenatzaile. Orain arte, klub bereko jubenilekin aritu da lanean, eta hemendik aurrera, helduen gidari izango da.

Zer moduz joan zen larunbateko partida?

Derbia zen, eta horrek berezi egin zuen. Ordiziakoak iaz jaitsi ziren mailaz, eta partida nahiko parekatua izan zen. Lehendabiziko zatian sartu zuten beraiek gola.

Ondoren, guk minutu gutxira berdinketako sartu genuen, eta partida, ia gure alde jarri zela ere sango nuke. Guri utzi ziguten neurketaren nondik norakoa finkatzen.

Hiru partida jokatu dituzue, zer moduzko hasiera izan da?

Aurten taldea nahiko gaztea da. Batez besteko adina, 22 edo 23 urtekoa izango da. Bestalde, niretzat maila berria da, eta lehendabiziko partida hauetan, etxean jokatzeko kostatzen ari zaigu. Ez dakit zergatik den, presioagatik, taldea gaztea delako, baina Berazubin irabaztea ez da horren erraza.

Nola ikusten duzu taldea?

Erdiak, hamalau inguru, iazko jokalariek dira. Bi edo hiru berri ere sartu dira, eta jubeniletatik ere batzuk igo dira. Taldea ondo dago, hala ere, denboraldia aurrera doan heinean, ziurrenik gehiago eman go du. Etxean irabazi beharra daukagu. Bestetik, orain arte ez dugu partida bat bera ere galdu, eta hori

garrantzitsua da. Aurkari indartsuak izan ditugu lehen jardunaldietan eta hala ere, hauek ez digute irabazi.

Iaz, mailaz igozteaz zen helburua, aurten ere horrela al da?

Hirugarren Mailan egon zenez lehen Tolosa, jokalar, jarraitzaile nahiz ingurukoek beti buruan dute berriz, horra igoztearena. Helburu hori zehaztu ez badugu ere, jendeak hor dauka. Talde gaztea da eta goruntz begiratzen dute, urrutirako asmoak dauzkate.

Entrenatzaile bezala, orain arte jubenilekin aritu zara. Aldaketa handia al da?

Zortea izan dut, jubenilekin maila gorenean aritu baina. Txapelketa handitan aritu gara lehen. Hala ere, adinean aldaketa nabaritzen da. Kalitatezko jendea dago jubeniletan ere, baina gaztetxoak dira. Helduek konpromiso handiagoa erakusten dute. Gainera, entrenamenduetan, lanerako dinamika

dago. Nabarmena da, helduen taldea erreferente dela klubean. Jende gehiago mugitzen da hauen partidak jarraitzeko asmoz.

Zeintzuk dira Tolosa CFren indarguneak?

Talde herrikoia da. Hori dela eta, jendeak lotura handia du honekiko. Tolosarrek bizi egiten dituzte beraien partidak, eta beste modu batera ikusten ditu. Konpromisoa erabatekoa da. Bestalde, taldea konpentsatua dago.

Hurrengo partida nola ikusten duzu?

Larunbat honetan Zarautz izango dugu aurkari. Hiru partidetatik bat irabazi dute hauek. Iaz jaitsi ziren Hirugarren Mailatik eta aurten talde osoa mantentzen da. Beraz, zaila izango da hauei irabaztea. Lehiatua izango da norgehiagoka. Dena den, moralez indartsu dugu. Gure helburua da, etxeko partidak irabaztea, eta kanpoak ez galtzea.

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

XI. urteurrena
JUANITA AMUNDARAIN OTEGI
JUAN MIREN MENDIZABAL BENITO

Urruti zaudete eta zaila da gu zuengana iristea, hainbeste maite zaituzten batzuentzat a zerenolako gauza triste! Alegria bakarra daukagu, ametsetan sinistea. Zuek ikusteko noiznahi aski dugu, gure begiak ixtea.

Maite eta behar zaituztegu, beti

Garazi, Javi, June eta Aratz, Itxaro, Alberto, Aiora eta Intza, Elorri eta Unai

ORDIZIA
2009ko irailaren 29a

JOSE IGNACIO AIZPITARTE
ARRUABARRENA

Maddi eta Ugaitz gure ikasleena aita

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.

Uzturpe ikastolako ikasle, guraso eta langileak

IBARRAN
2009ko irailaren 29an

BERTAKO JAKIEN FESTA



Baseritar askok eraman zituzten euren aberreak Asteasuko azokara. Ibarren ere abere ugari ikusi izan ziren eta 22 bat postu jarri zituzten Emeterio Arrese parkean. L. URKALAGA

Azoka bereziak Azoken eguna izan zen igandekoa; Asteasun, Ibarren eta Bidegoian bertako produktuk nagusitu ziren.

BERRIA CALVO

Garaian garaiko eta bertako produktua izan ziren jaun eta jabe igandean. Asteasun, Ibarren eta Bidegoian azoka bereziaren eguna izan zen eta eguraldi ona lagun jende asko gerturatu zen azoketara.

Ibarra, Ibarra, azoka eta pipirra, jende asko gerturatu zen herenegun goizean. Hainpooa Kultur Ekarlekutik antolatzen du azoka berezia urtero eta bertako, Arce, Peña Aguirre eta esandakoaren arabera, «geroz eta jende gehiago animatzen da parte hartzen». Horretarako...

xegatik zer bait nabarmendu behariko biko, giro onarekin batera, lehiaketan parte hartzen eta antolatketan aritzen diren pertsona guztiaren lana nabarmenduko luke. 22 bat postu izan ziren goizean eta zehar eta Emeterio Arrese parkean zeuden saltzaileak gustura geratu ziren saldukoarekin. Baseritar askok aberak jasi zituzten eta oso giro polita izan zen ingurua.

Plazan, aldi, artisauak bildu ziren etabita «herrikotik alde desberdinek egiten dituzten lanak ere». «Bai Euzkalk Herriak izan ziren, Euzkalkaren auzirako bonoak saltzen ari ziren, urtean zehar kultur tailerretan egindako lanak erakutsi zituzten...» esan du behar-garilanak.

Uzturpe ikastolako arduradunek ere argazki zaharrak bilduko eskara luzezko bildua zuten azoka. Izan ere, ikasle ohien, gurasoen edota Uzturpeko partaide izan diren urtean gazteok dago desberdintza salduz diru bildu eta bidetaz, euren lana ezagutzera emateko.

Postu, abere eta artisauaz gain, urteroko moxam, bi lehiaketa ere egin zituzten Ibarra Pipiraren Euzkalk Herriko V. Lehiaketa Gastronómico eta Tolosaldeko XII. Ezti Txapelketa, bain zuzen.

Pipiradak eta pintxoak

Lehiaketa gastronomikoari dagokionez, bi sari desberdin eman zituzten: pipiradagaz zuzen eta pintxorik onenari. Pipiradaren hauak izan ziren lehen hirurak: Ibarra Juan Antonio Rodríguez eta Elena Sánchez, Hernanillo Tolare...

Zubi-musuko Xabier Mendizabal eta Jose Juan Ijurkorena izan ziren Ibarra pintxorik onena.

Sagardo Kofradilako Jose Manuel Trigueros eta Tomas Nubez, eta Tolosaldeko II. Tabernako Miria Carceller.

Pintxorik onenak egin zituztenak bertako hauak izan ziren: Donostiako Zubi-Musuko Elkarteko Xabier Mendizabal eta Jose Juan Ijurko, Ibarra Ibarra Kiro Elkarteko Fernán Zubillaga eta Iñigo Olano eta Ibarra Xepela Elkarteko Alberto Zubeldi eta Karlos Arretxaga. Peña Aguirrek lehiaketa parte hartzaileen maila salatu nabarmendu du, «geroz eta zailago da inbartzeko aukera...

tzan, nabarmendu da. Ezti txapelketan ere bederatzik hartu zuten parte, izan baina gehiagok, eta Ibarra Kepa de la Iglesia irabazi zuen. Bigarren, Elduaineko Simon Nazabal egin zuen eta hirugarren, aldi, Asteasuko Fidei Aguirre, Guztia bukatu eta gero antolatzaile, parte-hartzaile eta zentral herriar, 125 bat, bozkarik egin zuten.

Bidegoian azoka berezia

Bidegoian ere azoka berezia egin zuten eta jende asko bildu zen bertan. Jabier Dorronsoro kultura zinegotziak esandakoaren arabera, zazpi bat postu izan ziren. Herriarrek ere eskualdeko kaleratzeko aukera izan zuten eta eskola zaharren jarri zituzten. «Herriko sei emakumeek eskualdeko egiten zuten erakutsi zuten eta honekin batera produktu asko erosteko aukera izan genuen», nabarmendu du. Udak sagardo, txakolina eta sardinak ziren hirurak.

Asteasuko azoka berezia ere jende asko bildu zela dio Ainhoa Etxabe udal dinamizatzaileak. «Jende asko etorri zen eta oso giro ona izan genuen bertan. Guztira 60 bat postu izan genituen eta salmenta onak izan zituztela esan zituzten saltzailek, batez ere elkarrekin postuetatik», argitu du. Asteasun ere herriko produktuk ikusi eta erosi ahal izan ziren...



Bidegoian, urtero bezala, sardinak banatu zituen udalari hiru euroren truke. L. URKALAGA

eta Etxabek, batez ere, produktuen kalitatea nabarmendu du. Asteasun orain hiru urte bitartek egin zuten ardi txakur lehiaketa egin zuten Lamiategi larran. Bost txakur ardi ziren lehiatzen eta Elgoibarreko Juan Jose Aguirrezabalak eta Askar txakurak irabazi zituzten. Bigarren Azkoitiko Ramon Larrañaga eta Txato txakurak egin zuten, hirugarren Etxabek (Bidea) Juan Egoitok eta...

Juan Jose Aguirrezabalak eta Askar txakurak irabazi zituzten ondoren ardi txakur lehiaketan.

Lukik, laugarrenak Laudio (Araba) Fidei Alonso eta Aurki txakurak izan ziren eta bosgarrenak ere Laudioak izan ziren, Txarri Larrazabal eta Mendi txakurak. Jende asko bildu zen lehiaketa bueltako eta bueltako polita eskaini zuten parte-hartzaileek.

Arce azoka berezia arrakastatsua

Aurtengo bertakuntza, dena den, arcesen lehiaketa izan da. Dena den bertan «arrakastatsua» izan zen, guztira 16 pertsonak hartu zuten...

ten parte, asteasunak gurriak, eta epaileentzako «zaila izan ziren aukeraketa», gurriak biltzeko oso geroak, argitu du Etxabek. Alai Goliak irabazi zuen, azkenek, eta bigarren eta hirugarren Azkar Aguirre eta Marjose Jauregi, egin zuten, hurrenez hurren.

Esnearen kontsumoa bultzatuz

Honekin batera, postu berezi bat ere jarri zuten azokan, bertan esnearen kontsumoa bultzatzeko. Postu honetan esnea doan banatu zuten eta ondoren beste bi postu jarri zituzten Mahala eta Goenaga enpresek. «Behi esnea eraldatzen duten bi enpresa hauek, garbitu zituzten esnearen parte hartzaile horrek beraien produktua saldu eta dastatzeko eskaintza aukera izateko, esan du. Postu honetan bertan zuzeneko musikariak ere aritu ziren azoka egunetan. Hiru azoketako arduradunak pozik agertu dira jendeak egindako harrekin eta postuetako saltzailek ere «bizi» garai bala ere esko bildu dute. Deneren hitzordua Leaburu-Txarman izango da, bertan egingo baita urterean Iñi Gando, Barmaki eta Artasu azoka.



Pipiradak irabazteak, Rodríguez eta Sanchez, eta pintxoak, Mendizabal eta Ijurko. A. BAZ



Ibarra Kepa de la Iglesia irabazi zuen Ibarra V. Lehiaketa. A. BAZ

Zinema etxean

6 DVD euskaraz

azaroaren 10etik aurrera larunbatetan DVD bat

1. Mantagori
2. Hots 3. herriaren mendian
3. Beltz eta Nagabako mistika
4. Olatzaren eta Sabaren lapurretak
5. Urtebetea festa
6. Prop & Berta

HARRI BIDEAN ETXEA
BILUJA COOIA 26
ESKOLA GITEGIA 34 34 45
harrietza@berria.info
900 www.berria.info

berria

aukera ezazu. BIZI euskaraz. **berria**

• inst. industrialak • berokuntza
• iturgintza • eguzki plaka
• aire egotitua • gasa

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURIA • Tel/fax: 943693352 • e-mail: 656416808

MUGARRIK GABEKO GARRAIO BEREZIA

1kg... 25tn.

Kale Nagusia, 14 - 2. sol. 20271 IRURIA (Spuzioa)
Tel: 946 691 416
Tel: 946 671 865
www.smgindustrial.com

Egun nagusia izango da gaur Irura eta Aldabako San Miguel jaietan

Jaiak » Mikel Deuna eguna izanik, meza nagusiak eta gero bietan hainbat ekitaldi izango dira; Iruran Bixi Larrinaga Larrinaga omenduko dute.

ERREDAKZIOA

Egun handia izango dute gaurkoan Iruran eta Aldaban, gaur Mikel Deuna eguna baita. Asteguna izanik ere, badaude hainbat ekitaldi herrian zein auzoan. Iruran, esaterako, meza nagusia eta gero omenaldia egingo diote Bixi Larrinagari. Hamaiketako eta dantzari txikien emanaldia ere izango da. Arratsaldean, besteak beste, Erramun Martikorenaren eta Mikel Markezen emanaldia izango da. Aldaban, gaurkoan, meza nagusia eta hamaiketako izango dira goizean. Festak amaitzeko afari herrikoia egingo dute.

Igandean Aldaban ehun lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian eta frontoia goraino bete zen. Bestalde, Iruran atzokoan kantujirasaioa izan zen Loatzo musika eskolako ikasleek alaiturik. Orriak banatu zituzten jendearen artean kanten hitzekin eta abeslari ugari elkartu ziren plazan, horietatik asko haurrak. Gaur ere girorik ez da faltako Iruran zein Aldaban.

» GAURKO EGITARAUA

Irura

- **09:00.** Goiz-eresia txistulariekin.
- **11:00.** Meza nagusia. Ondoren Herriko dantzari txikien saioa eta hamaiketako herrikoia.
- **13:30.** Apar festa plazan.
- **18:00.** Irura eta inguruko herrietako dantzari txikien saioa. Hauei merienda emango zaie.
- **19:30.** Erramun Martikorena eta Mikel Markezen emanaldia.

Aldaba

- **11:00.** Meza nagusia.
- **12:00.** Hamaiketako herriarentzat.
- **17:30.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria.
- **18:30.** Karta txapelketa.
- **20:30.** Afari herrikoia.

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Garajea.** Alegian, San Joan kalean garajeko marra salgai. Prezioa: 18.000 euro. 669 82 70 96.
- **Etxebizitza.** Tolosako Gorosabel kalean bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bata bi logelakoa, 180.000 eurotan. Bestea, berriz, 156.000 eurotan. 669 82 70 96.

ALOKAIRUA

- **Kafetegi-txokolategia.** Tolosan, erdigunean, martxan dagoen kafetegi-txokolategia alokatzen da.

Arazoia: jubilazioa. 669 82 70 96.



Ehun lagun inguru elkartu ziren igandean Aldabako frontoian herri bazkarian. IDOIA LAHIDALGA



Aldaban, sagardo kupelak girotu zuen herri bazkaria. IDOIA LAHIDALGA



Loatzo musika eskolako ikasleak Irurako kantujiran. I. GARCIA



Iruran atzo egin zen kantujiran lagun ugari elkartu ziren kantuak abesteko. I. GARCIA



Bedaioiko II. Zaldi Raid lasterketan parte hartu zuen zaldunetako bat. IDOIA LAHIDALGA

Goizez Bedaion eta arratsaldez Zizurkilena zaldiak izan dira nagusi

Kirola » Bedaioiko II. Raidean 30 zaldun izan ziren eta Zizurkileko VIII. lasterketan 12 zaldun lehiatu ziren.

ERREDAKZIOA

Igandean, bai Bedaion eta baita Zizurkilena ere, zaldiak izan ziren protagonista. Goizean, Bedaion Raid lasterketan eta arratsaldean Zizurkilgo lasterketan lehiatu ziren zaldunak. Eguraldi ona izan zuten bai batean eta bestean ere.

Thor zaldia garaile

Bedaioiko II. Raid lasterketan 30 zaldunek hartu zuten parte. 15 kilometroko zirkuitua bi zatitan burutu behar izan zuten. Goizeko 08:15ean kotxe eta zaldi karabanak Bedaion gerturatzen hasi ziren. Karrera hasi aurretik, ordea, albaitarien aurrean zaldiak aurkeztu behar zituzten. Karrera aurre egiteko egoera onean zeudela albaitariak egiaztatu behar zuten; ondoren, oniritziarekin dortsalak hartu, eta prestatzen joan ahala hasi ziren irteera hartzen.

Gipuzkoako herri askotako zaldunak iritsi ziren Bedaion. Errenteria, Zubieta, Lasarte, Olaberria, Zarautz, Ugarte, Amezketza, Tolosa, Alegia... Guztiek Bedaion eta bere inguruak ezagutzeko aukera izan zuten.

Artubi Elkarteak kideak beste behin ere «oso gustura» geratu dira lortutako emaitzarekin. Partaidetza aldetik «nahiz eta jendeak errepikatu, jende berri asko» ikusi dutelako. Albaitarien iritziz «aurten zaldiek hobeto burutu dute ibilbidea». Zaldiak, albaitarien



Zizurkilgo lasterketako une bat. I. LAHIDALGA

kontroletara «egoera indartsuagotan joan dira eta arauak aplikatuz, bost zaldik bakarrik utzi behar izan zuten lasterketa bertan behe-ra».

Bedaioiko II. Raid lasterketaren irabazlea Naiara Orokieta izan zen Thor izeneko zaldiarekin.

Antolatzaileek beste behin ere, eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile lanetan parte hartu duten enpresa desberdinei eta baita lanean aritu diren bedaiotarrei.

Antolatzaileak eta parte-hartzaileak «gustura» geratu ziren, beraz, herenegungo Raid lasterketarekin eta jada, hurrengo urtean ere, III. Raid-a antolatzeko prest agertu dira bedaiotarrak.

Xanti Telleria nagusi

Zizurkilgo lasterketa, bertako jai batzordeak antolatzen du eta aurtengo zortzigarren urtea izan da. Arratsaldeko 18:00etan hasi zen lasterketa eta 15 zaldiren arteko

lehia izan behar bazuen ere, azken momentuan, hiru zaldunek huts egin zuten. Eskualdeko hiru zaldunek hartu zuten parte, Jon Lizaso, Asier Mujika eta Naiara Orokieta izan ziren. Azkena, goizean Bedaioiko II. Raid lasterketan garaile izan ostean, Zizurkilena izan zen eta gainera, bera izan zen 12 parte-hartzaileen artean emakume bakarra.

Hiru kanporaketatan, launa zaldun lehiatu ziren eta horietatik bi finalerako sailkatu ziren. 1,4 kilometroko ibilbidean bost itzuli egin behar izan zituen zaldun bakoitzak.

Asier Mujika zizurkildarra, lehen kanporaketan finalerako sailkatu zen eta finalean, Xanti Telleriarekin lehen bi postuetarako lehian zebilela lurrera erori zen hankak huts egin ostean. Beraz, lehenengoa Xanti Telleria izan zen eta bere atzetik, Txomin Zubia eta Egoitz Iraola sailkatu ziren, hu-

rrenez hurren. Finalera iritsi ziren sei zaldunen arteko lehia gogorraz gozatu ahal izan zuten ikusle guztiek.

Jai batzordetik, «eskerrak» eman nahi izan dizkiete, lasterketan parte hartu zuten zaldunei eta baita, bertara gerturatu ziren ikusle guztiei ere.

Testamentuaren gaineko hitzaldia izango da udal liburutegian

Ikaztegieta » Bizi testamentuaren inguruko hainbat puntu jorratuko dituzte ostegunean.

ERREDAKZIOA

Kutxako Gizarte Ekintzak antolatuta, bizi-testamentuari buruzko araudiaren alderdiak ezagutaraziko dituzte etzi, 17:00etan liburutegian izango den hitzaldian.

Jardunaldiaren edukiak modu simple eta atseginean aurkeztuko dira. Parte hartzen dutenek egiten dituzten galderak eta zalantzak argituko dituzte. Araudia, bizi-testamentuaren edukia, norik egin dezakeen bizi-testamentua, zainketa aringarriak, eutanasia aktiboa eta pasiboa, heriotza duina, tratamendu etetea eta bizi-testamentuaren ereduak izango dira hizketa gaiak.


Laburrak

Gaur 19:30ean Osoko Bilkura Pleno Aretuan

TOLOSA » Ohiko Osoko Bilkura egingo dute Udal Pleno Aretuan 19:30ean. Zortzi puntu izango dira eztabaidatu eta hala badagokio onartzeko: besteak beste, behin betiko onarpena ematea lurzoruen kudeaketarako udal merkataritza-sozietate baten eraketari eta lurzorua lagatzeari Elkargune (Urki zu Auzoa) berria eraikitzeko eta hitzarmena onartzea.

Antzerki Taldea martxan jartzeko bilera gaur

ALEGIA » Gaur 20:00etan elkartuko dira Herriko Antzerki Taldea martxan jarri nahi duten kideak Kultur Etxean. Bertan, besteak beste ordutegia erabakiko da. Talde honetan, 14 urtetik gorako edozeinek izena eman dezake eta bertan, lehenengo tailer batean, irudimena, ahokotasuna, espresioa, gorputzaren lanketa... jorratuko dituzte.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



24°
13°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 23°
HOTZENA 14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariorde: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Aldaba.** Gaurko egitaraua: 11:00etan meza nagusia, 12:00etan hamaiketako herritarrentzat, 17:30ean Idoia Sanchez ipuin kontalaria, 18:30ean karta txapelketa eta 20:30ean afari herrikoa.

■ **Irura.** Gaurko egitaraua: San Miguel Eguna: 09:00etan goiz-eresia txistulariekin, 11:00etan meza nagusia, ondoren herriko dantzari txikien saioa eta hamaiketako herrikoa, 13:30ean apar festa, 18:00etan Irurako eta inguruko dantzari txikien saioa, 19:30etik aurrera Erramun Martikorena eta Mikel Markez abeslariaren kantaldia.

■ **Zizurkil.** San Miguel eguna dela eta, San Miguel ermitan meza egingo dute 18:00etatik aurrera.

Deialdiak

■ **Anoeta.** Euskal Jai antolatze bilerara udaletxean 18:00etan. Herriko talde eta herritar guztiei irekia.

■ **Berastegi.** Bihar, odol bankoa etorriko da Muñagorri herri eskolara 18:30etik aurrera, odola emateko aukera izango da beraz.

■ **Tolosa.** Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldea bilera irekiekin hasiko da berriro hilero, azken asteartean Korpus Kristi parroikiko lokaletan 20:00etatik aurrera.

Tolosa. Bisita gidatuak antolatu dituzte Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan. 12:00etatik 18:00etara bitarte izango dira bisitak. Izen-ematea ireki dute eta hainbat bide ireki dituzte horretarako: Tolosako Ekinbide Etxean (943 650414 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo topic@cittolosa.com helbidean egun daiteke.

Tolosa. Helduen Hezkuntza Eskolan ikasturte berrirako izena emateko epea irekita dago. 18 urtetik gorakoentzat doako ikaskuntza eskaintzen dute. Hainbat ikastaro dituzte aukeran. Izena emateko Helduen Hezkuntza Eskolan bertan (Igaralde kalea, 23) 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara edo 943 672660 telefono zenbakira deituta.

■ **Tolosa.** Arraunean hasi nahi du tenentzate deialdia zabaldu du Tolosaldeko Arraun Klubak, T.A.K.E.K., 2000. urtea baino lehen jaio direnentzat. Zerkausiarren behoko lokalerara azaldu beharko dute intere-



Albizturko tomate ederra

IBARRA ■ Albizturko babarrunak omen dira onenak, baina tomate hau ikusita bertako klima tomateentzako ere egokia dela dirudi. Kilo eta erdiko tomate eder hau Albizturko Jose Mari Etxeberriaren baratzaokoa

da eta Ibarra Felix Lazkanoren harategian ikusi daiteke. Lazkano harro ageri da lagunak jasotako altxor horrekin eta berarentzako mezu hauxe utzi du: «Pari zure batzak eman du jana ugari!». R. CALVO

A Agurrak



Urte askoan!

Haizea Baraibar Goñi (Areso).

Ondo pasa zure lehen urtebetetze egunean. Muxu handi bat Berrobiko aiton-amonen partetik.

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

satuek astelehen, asteazken edo ostiraletan 18:00etatik 20:00etara.

■ **Tolosa.** Tolargik eta Tolosagako urtero antolatzen duten Argazki Lehiaketara argazkiak bidaltzeko epea bihar amaituko da. Euskara eta gure kultura da aurtengo gaia eta irabazleek urte osoko gasa eta argia doan izango dute sari bezala. Tolosaga edo Tolargiren bulegoetan aurkeztu daitezke argazkiak.

■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko aukera dago. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara joan beharko da euskaltegira (Rondilla kalea, 34) edo 943 651006 edo 943 652343 telefono zenbakietan lortu ahalgo da informazio gehiago.

■ **Tolosa.** Txixti Orbegozo eta Helga Massetaniren tailerretan izena emateko aukera. 669 69 43 21 edota 617 23 80 62 telefono zenbakietara deituta. Tolosako Igaralde kaleko lehenengo zenbakiko bigarren solairuan emango dituzte eskolak.

■ **Villabona.** Jubilatuen XXV. Astea ospatzen ari dira: gaurko, karta jokoen finalerdiak antolatu dituzte Biltoki elkarteak 17:00etatik aurrera. Bihar, berriz, Santiago Egoitzara bisita egingo dute goizean eta ondoren hamaiketako.

Erakusketak

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan. Urriaren bukaerara arte izango da ikusgai.

■ **Ibarra.** Gerrako umeei buruzko erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitako bizipenak jaso dira. Idi Ezkerra fundazioaren eskutik. Hilabete bukaerara arte dago ikusgai.

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagireren pintura erakusketa Aranburu Jauregian. Urriaren bukaerara arte ikusgai.

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian, urriaren 3ra arte izango da ikusgai.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.